

Herribiltza: Euskal Herritarren Biltzarren Elkargoa

ZERGATIK ETA ZERTARAKO HERRIBILTZA ERAIKI?

Independentzia eraikitzen!

Frantziar eta Espainiar estatuen konstituzioek eta oinarrizko legeek, eta ondorioz beren instituzio político guziek, tartean Herriko Etxeek eta Udalek, Ipar Euskal Herriko Hiri Elkargoak eta Euskadiko eta Nafarroa Garaiko autonomiek, euskal herritarren, frantziarren, espainiarren eta munduko herritarren egoera sozial eta ekologiko kezkarria eragiten dute; bereziki eragiten dute:

- herritarrak egiazki erabakitzailleak ez izatea;
- genero ezberdinetako jendeen botere ezberdintasuna;
- esplotazioa eta langileen pobrezia;
- hizkuntza guttituen desagertzea.

Egoera kezkarria hori eragiten duten oinarrizko legeak aldatzea estatuen bortizkeriak eta izaera antidemokratikoak ezinezkoa egiten dutenez, estatuen menpe diren instituzio politikoaren baretik Euskal herritarren nahi eta beharrak asetzeko ezinezkoa da, hauteskundeetan irabaziz ere.

Gauzak hola, gure nahi eta beharrak asetzeko, euskal herriaren konstituzioak eta legeak arautuko dituzten instituzio politiko burujabeak gu haurek eraiki behar ditugu, erabakitzeko ahalmena herritarren eskutan izatea bermatuko dutenak, eta Frantziar eta Espainiar estatuengandik independenteak izango direnak.

Herritarrak egiazki erabakitzailleak izaitetik hurbiltzeko, instituzio politikoak herritarren biltzarburujabeak izan behar dira. Horretarako, Herribiltza, Euskal Herritarren Biltzarren Elkargoa, eraikitzen ari gara.

HERRIBILTZA ZER DA?

Herribiltza, Euskal Herritarren Biltzarren (batzarren, asanbladen) Elkargoa (federazioa), euskal herritarren biziei buruz erabakitzeko boterea egiazkiz gure eskutan izatea bermatu nahi duen Euskal Herri osoko erakundea (instituzioa) da, egiazko demokrazia bermatu nahi duena beraz.

Herribiltzan edozoin hizkuntza erabil daiteke, baina lehentasuna eta nagusitasuna euskarari emaiten diogu.

Oinarrizko Biltzarra, herri, auzo, eraikin edo karrika baten auzotar hamarkada batzuek osatzen dute. Biltzarrak, auzotar adingabe bat noiz biltzarkide bilakatzen ahal den erabakitzen du.

Biltzarran, kideen biziei, beharrei, nahiei, pozei, bihozminei eta arazoei buruzko eztabaidak egiten dira, eta biziko arlo guzietan gure nahiak eta beharrak gu haurek asetzeko, ekintza politiko, poetiko, ekologiko, sozial, kultural eta ekonomikoak gauzatzeko erabakiak hartzen dira.

Biltzarrak, biltzarkideen arteko adostasuna lortzeko ahaleginak egiten ditu. Lortzen ez duelarik, erabaki bat biltzarkide guzietan behartzeko, erabakiak guttienez esku hartzaileen bi herenen onspena behar du.

Biltzarrak, bere erabakiak gauzatzeko, nahi duten biltzarkideei egin behar zehatzak agintzen dizkie. Egin behar zehatzen egileak aldizkatzeko ahaleginak egiten ditu eta edozein unetan alda ditzake. Egin behar zehatza, biltzarrarentzat erabaki batzuk hartzea izan daiteke, baina soilik premiazko egoeretan edo jokoan dena ez delarik garrantzi haundikoa edota itzuliezina.

Agindurik gabe ere, biltzarkideek bi bilkuren artean biltzarrarentzat erabaki batzuk har ditzazkete, baina soilik premiagatik edo jokoan dena ez delarik garrantzi haundikoa edota itzuliezina.

Arazo bat ezin delarik Oinarrizko Biltzarran konpondu edota jokoan denak Oinarrizko Biltzarraren lurraldea gainditzen duelarik, lurralde zabalagoko (haran, herri haundi edo hiriko auzo) Oinarrizko Biltzarren artean elkarlana egiten da.

Elkarlana, zuzenki oinarrizko biltzarren artean egiten da edota Oinarrizko Biltzarrak elkartzen dituen Lehen Hedadurako Biltzarren Biltzarran.

Oinarrizko Biltzarrek, Lehen Hedadurako Biltzarren Biltzarrerako guttienez bi bozeramaile hautatzen dituzte, ahalaz genero eta belaunaldi ezberdinetakoak. Oinarrizko Biltzarrak, bozeramaileak aldizkatzeko ahaleginak egiten ditu eta edozein unetan alda ditzake. Ahalegin hori, bozeramaileak hautatzeko moldeak bermatu behar du.

Bozeramaileek, Oinarrizko Biltzarraren boza (erabakiak) Biltzarren Biltzarrera eramaiten dute, eta Biltzarren Biltzarraren boza (proposamenak) Oinarrizko Biltzarrera eramaiten dute. Erabakitzeko boterea beraz, lurralde hedadura txikieneko biltzarran gelditzen da beti.

Lehen Hedadurako Biltzarren Biltzarra, Oinarrizko Biltzarren bozeramaile hamarkada batzuek osatzen dute; biltzarkideen arteko adostasuna lortzeko ahaleginak egiten ditu. Lortzen ez duelarik, proposamen bat Oinarrizko Biltzarrei egiteko, proposamenak guttienez esku hartzaileen bi herenen onespena behar du.

Arazo bat ezin delarik Lehen Hedadurako Biltzarren Biltzarran konpondu edota jokoan denak biltzar honen lurraldea gainditzen duelarik, lurralde zabalagoko (eskualde edo hiri) Oinarrizko Biltzarren artean elkarlana egiten da. Elkarlana, zuzenki lurralde zabalagoko Oinarrizko Biltzarren artean egiten da, edo lurralde zabalagoko Oinarrizko Biltzarrak elkartzen dituen Bigarren Hedadurako Biltzarren Biltzarran.

Bigarren Hedadurako Biltzarren Biltzarra, Oinarrizko Biltzarren bozeramaile hamarkada batzuek osatzen dute.

Finkatutako bozeramaile kopuruaren arabera, Oinarrizko Biltzar bakoitzak hautatu behar dituen bozeramaile kopurua finkatzen da.

Euskal Herriko Biltzarren Biltzarrerarte, Oinarrizko Biltzarren arteko elkarlana, Oinarrizko Biltzarrak elkartzen dituzten hedadura gero eta zabalagoetako biltzarren biltzarretan (hirugarrenekoa, laugarrenekoa...) egiten da.

Herribiltzak, justizia soziala bermatzeko, jendartea Herri Hitzarmen honetan oinarrituz eraikitzea proposatzen du:

- herritarrak egiazki erabakitzailak izatea;
- genero ezberdinetako jendeen botere berdintasuna izatea;
- langileen esplotaziorik ez izatea; lankidetzazko eta elgar laguntzazko harreman ekonomikoak izatea;
- bizitzeko behar ditugun gauzak ukaiteko posibilitate berdina ukaitea denek: bizitegia, jantziak, elikagaiak, energia, sendagaiak...
- hau da, bortizkeriarik gabeko giza harremanak izatea;
- Euskal Herrian, lehentasuna eta nagusitasuna euskarari ematea.

NOLA HERRIBILTZA ERAIKI?

- 1) Herribiltzaren aurkezpenak egin eta euskal herritarrei Herribiltzako kideak izaitzea proposa.
- 2) Euskal Herriko lurralde hedadura guzietan, ber unean biltzarrak sortu: herri, auzo, eraikin, karrika, haran, herri haundi, hiriko auzo, eskualde, hiri, herrialde eta Euskal Herria. Biltzar bat bi lagunen artean eraikitzen has daiteke.
- 3) Euskal Herriko lurralde hedadura ezberdinetan, biziko arlo guzietan gure nahiak eta beharrak gu aurrek asetzeko batzordeak sortu: lana, bizitegia, energia, elikadura, lurra, osagarria, zaintza, justizia, autodefentsa, hezkuntza, ingurumena...
- 4) Batzorde hauek hunkitzen dituzten arloetan Herribiltzatik kanpo jada lanean dihardutenak (elkarteetan, alderdietan, mugimenduetan, instituzio politikoetan...), Herribiltzaren batzordeetako eta biltzarretako kide izaitera gomita.

BILTZARREN ETA BATZORDEEN IBILMOLDEA

Batzordeak

Batzordeak biltzarrentzat proposamen egileak dira, ez erabakitzaileak, eta biltzarren ibilmolde berdina dute.

Lurralde hedadura ezberdinetako batzordeen arteko elkarlana, biltzarren arteko elkarlana bezala egiten da.

Batzorde bat, denei irekia izan daiteke edo sortzen dutenek nori ireki erabaki dezakete, hurbiltasunez (afinitatez) osatutako batzordeak eraginkorrakoak izan daitezkeelako.

Biltzarren eta batzordeen bilkuren eraginkortasuna

Denen ardura da:

- egitarauaren atal bakoitzarentzat aurreikusitako denboraren errespetatzea;
- bakoitzak erraiten duena eztabaidagaiari hertsiki lotua izan behar dela gogoratzea.

Biltzarren bozeramaileak edo egin behar zehatzen egileak hautatzeko moldea

Bozeramaileen (eta egin behar zehatzen egileen) aldizkatzea bermatzeko helburuarekin, biltzarkideek anonimotasunez bozeramaile trebeak eta trebatuko diren bozeramaileak izendatzen ditugu. Boz gehien bildutakoetatik hasiz, izendatutakoek ardura hartzeko prest direnez edo ondokoari hartzeko aukera proposatzen diotenez adierazten dute.

EUSKARA BATZORDEA

Oinarri ideologikoa

Euskarak bizirik iraun dezan: Herribiltza!

Euskal Herrian euskaraz bizi nahi dugu, hau da, gure eguneroko aktibitate guziak euskaraz egiteko posibilitatea ukan nahi dugu.

Hizkuntza batek, bizitzeko, lurralde bat nun herritarrak lehentasunez eta nagusitasunez hizkuntza horretan mintzatzen diren behar du.

Frantziar eta Espainiar estatuen konstituzioek eta legeek, eta ondorioz beren instituzio politiko guziek, tartean Herriko Etxeek eta Udalek, Ipar Euskal Herriko Hiri Elkargoak

eta Euskadiko eta Nafarroa Garaiko autonomiek, ez dute euskararen bizirik irautea bermatzen.

Konstituzio eta lege bidegabe hauen aldatzea oso oso zaila denez, estatu hauen menpe diren instituzio politikoek baretik euskararen bizirik irautea bermatzea ezinezkoa da, hauteskundeetan irabaziz ere.

Gauzak hola, euskararen biziraupena bermatzeko, euskal herriaren konstituzioak eta legeak arautuko dituzten instituzio politiko burujabeak eraiki behar ditugu, erabakitzeke ahalmena herritarren eskuetan izaita bermatuko dutenak, eta Frantziar eta Espainiar estatuengandik independenteak izango direnak.

Herritarrak egiazki erabakitzailerak izaitaiteko, instituzio politikoak herritarren biltzar burujabeak izan behar dira. Horretarako, Herribiltza, Euskal Herritarren Biltzarren Elkargoa, eraikitzen ari gara.

Euskal Herriko erakunde politiko, ekonomiko, sozial eta kultural gehienek, ez diote euskarari lehentasuna eta nagusitasuna emaiten, eta ondorioz desagertzera kondenatzen dute. Horregatik, euskaltzale guziak, Herribiltzako kide izaitera gomitatzen ditugu, euskarari lehentasuna eta nagusitasuna emaiten dion Euskal Herri osoko instituzio politikoa baida. Euskarak Herribiltza behar du!

Euskara Batzordearen Helburuak

Euskararen erabilpenarekiko Herribiltzak duen ikuspegia ezagutaraztea.

«Euskaraz bizitzeko, lehenik eta nagusiki euskaraz!» lemapean ekintzak burutzea.

«Ofizializazioa Orain!» lemapean euskararen aldeko mezua zabaltzea.

Euskaraz bizi eta euskara bizi.

Euskara Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.

ITZULPEN BATZORDEA

Oinarri ideologikoa

Herribiltzan edozoin hizkuntza erabil daiteke, munduko hizkuntza guziak maite ditugulako, baina lehentasuna eta nagusitasuna euskarari emaiten diogu. Euskaraz mintzatzen ez dakitenak ikastera gomitatzen ditugu ; haientzat itzulpenak egiten ditugu, baina ez beti, eta ez baitezpada osoki.

Erdaldunei, Herribiltzaren bilkurentzat, idatzientzat eta ekintzentzat, itzulpengintzaren antolaketaren ardura hartzea eskatzen diegu : Itzulpen Batzordean esku hartuz, lagun itzultzaileak bilkuretara eta ekintzetara ekarriz, lagun itzultzaileei idazkien itzulpena eginaraziz, ahozko itzulpenerako material elektronikoa ekarriz...

Itzulpen Batzordearen helburuak

Herribiltzaren bilkurentzat eta idatzientzat, edota Herribiltzak antolatzen dituen ekintzentzat, itzulpengintza bermatzea.

Interesatzen zaizkigun erdarazko idazkien itzulpenak egitea.

Itzulpen Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.

BURUASKITASUNA BEROTZEKO ETA SUKALDATZEKO ENERGIAN **BATZORDEA**

Oinarri ideologikoa

Hurbileko giza taldeen buruaskitasun energetikoa eraikitzen

Zergatik berotzeko energiaren eskasia arriskua dugu Euskal Herrian?

Berotzeko egurra egiteko tresnak, makinak eta makina hauendako energia mundu mailako merkatutik datoz.

Berotzeko beste energia iturriak (elektrizitatea, gasa...) eta berogailuak mundu mailako merkatutik datoz ere.

Merkatuan ekoizpen edota banaketa arazoak baldin badira, merkatutik eskuratzen duguna eskasten ahal da.

Merkatuan arazoak sortzen dituzte: gerlek, beroketa klimatikoak, pandemiak, lehengaien (ura, petrolioa, metal urriak...) agortzeak, laborantxako lurren kaltetzeak, kapitalismoaren barne logikak (burtsen gainbehera...)...

Azken garaian merkatuan gero eta arazo gehiago izan da, eta gero eta gehiago izanen direla pentsa daiteke.

Berotzeko energia ekoizteko bitartekoen prezioak azkarki goititu dira.

Nola berotzeko energiaren eskasia aurreikus dezakegu Euskal Herrian buruaskitasuna garatuz?

Bizitegi indibidualetan eta kolektiboetan egurrarekin sukaldatzeko eta berotzeko tresna ahal bezain sinpleak ekoiztu.

Arbolak landa, ainitz, ainitz ainitz.

Surako egurraren ekoizpenerako tresna ahal bezain sinpleak ekoiztu.

Hiritar ainitz hirietatik herrietara bizitzera joaiten lagundu.

Berotzeko energia autosufizientzian Euskal Herrian ekoiztearen ondorioak

Berotzeko energiaren eskasia arriskua ainitz ttipitzen dugu.

Berotzeko bitartekoen ekoizpenean, garraioan, erabilpenean, konponketan, berziklapenean eta desegitean sortzen den kutsadura ainitz guttitzen dugu eta ondorioz beroketa klimatikoa ere.

Behar duguna guhaurek gero eta gehiago ekoiztuz, beste langileen esplotazioa ttipitzen dugu.

Kontsumoa ttipitzen dugu, ondorioz lehengaien agortze arriskua apaltzen dugu, eta ondorioz munduko herritar guzientzat aski lehengai izaiteko posibilitatea haunditzen dugu.

Denen osagarria hobetzen dugu.

Hurbileko giza taldea eraikitzen dugu.

Berotzeko energia munduko herritar guziek autosufizientzian ekoiztu ahal izaiteko baldintza

Denek lurra, lehengaiak eta ekoizpen bitartekoak erabiltzeko posibilitate berdina ukan behar dugu, hau da, lurra, lehengaiak eta ekoizpen bitartekoak denentzat berdintasunez eskuragarri izan behar dira.

Adibidez, bere etxea berotzeko egurra nahi duen orok, oihanetik egurra hartzeko eta arbolak landatzeko posibilitatea ukan behar du.

Berotzeko energia ekoizten dutenen eta beste ekoizpen batzu egiten dituztenen artean, elgar eskaintza garatu: eman eta hartu, hartu eta eman, har eta eman, harreman. Berotzeko eta sukaldatzeko energien prezioen goititzeak, eta eskasia arriskuak, kezkatzen gaituzte, baina herritarren artean arriskua aurreikustea pozgarria zaigu.

Buruaskitasuna Berotzeko eta Sukaldatzeko Energian Batzordearen helburuak

- Hurbileko giza taldeen buruaskitasuna berotzeko eta sukaldatzeko energian gaiarekiko, Herribiltzak duen ikuspegia ezagutarazi;
- Arbolak landatu;
- Surako egurraren ekoizpenerako tresna ahal bezain sinpleak ekoiztu;
- Bizitegi indibidualetan eta kolektiboetan egurrarekin sukaldatzeko eta berotzeko tresna ahal bezain sinpleak ekoiztu;
- Herrietan buruaskitasuna garatu eta hiritar ainitz hirietatik herrietara bizitzera joaiten lagundu.

Buruaskitasuna Berotzeko eta Sukaldatzeko Energian Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.

BURUASKITASUNA ELIKADURAN BATZORDEA

Oinarri ideologikoak

Hurbileko giza taldeen buruaskitasuna eraikitzen elikaduran

Zergatik janari eta ur edangarri eskasia arriskua dugu Euskal Herrian?

Euskal Herrian jaten dugun gehiena ez dugu Euskal Herrian ekoizten, mundu mailako merkatutik eskuratzen dugu.

Euskal Herrian ekoizten ditugun janaria eta ur edangarria ekoizteko, nagusiki mundu mailako merkatutik datozen ekoizpen bitartekoak erabiltzen ditugu: haziak, janaria abereendako, tresnak eta makinak, energia sukaldatzeko eta makinak ibilarazteko...

Ekoizten dugun janaria kontserbatzeko ere, mundu mailako merkatutik datozen bitartekoak erabiltzen ditugu: hozgailuak, hormagailuak, esterilizatzeko tresnak, gatzak, energia...

Merkatuan ekoizpen edota banaketa arazoak baldin badira, merkatutik eskuratzen duguna eskasten ahal da.

Merkatuan arazoak sortzen dituzte: gerlek, beroketa klimatikoak, pandemiek, lehengaien (ura, petrolioa, metal urriak...) agortzeak, laborantxako lurren kaltetzeak, kapitalismoaren barne logikak (burtsen gainbehera...)...

Azken garaian merkatuan gero eta arazo gehiago izan da, eta gero eta gehiago izanen dela pentsa daiteke.

Janaria eta ur edangarria ekoizteko bitartekoen eta elikagaien prezioak azkarki goititu dira.

Pandemia garaian saltegietan elikagai batzu eskatu dira.

Nola janari eta ur edangarri eskasia aurreikus dezakegu Euskal Herrian buruaskitasuna garatuz?

Arbolak landatuz oihanak garatu, eta bertan janaria bildu eta ihiztatu.

Jaten duguna ahal bezainbat hurbileko giza taldean ekoiztu.

Janaria eta ura ekoizteko bitarteko ahal bezain sinpleak erabil. Tresna horiek ahal bezain hurbil ekoiztu.

Haziak elgar eskaini.

Elikagaien ekoizpen autosufizienterako jakitateak trukatu.

Jaten ditugun abereen janaria Euskal Herrian ekoiztu.

Erreketako eta iturrietako uraren kalitatea zaindu.

Itsasoko uraren kalitatea eta arrain kopurua zaindu.

Janaria eta ur edangarria buruaskitasunean Euskal Herrian ekoiztearen ondorioak

Janari eta ur eskasia arriskua ainitz ttipitzen dugu.

Janariaren eta uraren ekoizpenean eta garraioan sortzen den kutsadura ainitz guttitzen dugu eta ondorioz beroketa klimatikoa ere. Oihanak eta lantzeko lurrak babesten ditugu.

Bioaniztasuna mantentzen eta garatzen dugu.

Behar duguna guhaurek gero eta gehiago ekoiztuz, beste langileen esplotazioa ttipitzen dugu.

Kontsumoa ttipitzen dugu, ondorioz lehengaien agortze arriskua ttipitzen dugu, eta ondorioz munduko herritar guzientzat aski lehengai izaiteko posibilitatea haunditzen dugu.

Denen osagarria hobetzen dugu.

Hurbileko giza taldea eraikitzen dugu.

Janaria eta ur edangarria munduko herri guzietan buruaskitasunean ekoiztu ahal izaiteko baldintza

Denek lurra, lehengaiak eta ekoizpen bitartekoak erabiltzeko posibilitate berdina ukan behar dugu, hau da, lurra, lehengaiak eta ekoizpen bitartekoak denentzat berdintasunez eskuragarri izan behar dira.

Adibidez, bere elikagaiak ekoizteko lurra nahi duen orok, lurra lantzeko posibilitatea ukan behar du.

Janaria edota ur edangarria ekoizten dutenen eta beste ekoizpen batzu egiten dituztenen artean, elgar eskaintza edo truke zuzena garatu: eman eta hartu, hartu eta eman, har eta eman, harreman.

Janariaren eta uraren prezioen goititzeak, eta eskasia arriskuak, kezkatzen gaituzte, baina Euskal herritarren artean arriskua aurreikustea pozgarria zaigu.

Buruaskitasuna Elikaduran Batzordearen Helburuak

- arbolak landatuz oihanak garatu;

- elikagaiak hurbileko giza taldeetan ahal bezainbat ekoiztu;

- elikagaiak ekoizteko tresna ahal bezain sinpleak erabil; tresna horiek ahal bezain hurbil ekoiztu;

- hazien Euskal Herriko elgar eskaintza sarea sortu;

- elikagaien ekoizpen autosufizienterako jakitateen Euskal Herriko truke sarea sortu;

- herrietan buruaskitasuna garatu eta hiritar ainitz hirietatik herrietara bizitzera joaiten lagundu.

Buruaskitasuna Elikaduran Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.

BURUASKITASUNA SENDAKETAN BATZORDEA

Oinarri ideologikoak

Hurbileko giza taldeen buruaskitasuna eraikitzen sendaketan

Zergatik sendagai eta sendatzeko tresna eskasia arriskua dugu Euskal Herrian?

Euskal Herrian erabiltzen ditugun sendatzeko tresnak eta artatzeko tresnak nagusiki mundu mailako merkatutik datoz.

Euskal Herrian ekoizten ditugun sendagaien ekoizteko, nagusiki mundu mailako merkatutik datozen ekoizpen bitartekoak erabiltzen ditugu: haziak, landareak, produktu kimikoak, tresnak eta makinak, energia makinak ibilarazteko...

Merkatuan ekoizpen edota banaketa arazoak baldin badira, merkatutik eskuratzen duguna eskasten ahal da.

Merkatuan arazoak sortzen dituzte: gerlek, beroketa klimatikoak, pandemiek, lehengaien (ura, petrolio, metal urriak...) agortzeak, laborantxako lurren kaltetzeak, kapitalismoaren barne logikak (burtsen gainbehera...)...

Azken garaietan merkatuan gero eta arazo gehiago izan da, eta gero eta gehiago izanen direla pentsa daiteke.

Sendagai batzuen eta arten prezioak goititu dira.

Nola sendagaien eta sendatzeko tresnen eskasia aurreikus dezakegu Euskal Herrian buruaskitasuna garatuz?

Gure osagarria gehiago zaindu: hobeki jan eta edan, jarduera fisikoa egin, osasun mentala eta emozionala zaindu, ongi arnastu, urduritasuna ttipitu, kaltegarriak izaiten ahal zaizkigun produktu batzuek gehiegi ez kontsumitu...

Sendagaiak eta sendatzeko tresnak ekoiztu.

Hurbileko ospitale autonomo herritarrak eraiki.

Sendagaiak eta sendatzeko tresnak Euskal Herrian buruaskitasunean ekoiztearen ondorioak

Sendagaien eta sendatzeko tresnen eskasia arriskua ainitz ttipitzen dugu.

Sendagaien eta sendatzeko tresnen ekoizpenean, garraioan, erabilpenean, berziklapenean eta desegitean sortzen den kutsadura ainitz guttitzen dugu, eta ondorioz beroketa klimatikoa ere.

Behar duguna guhaurek gero eta gehiago ekoiztuz, beste langileen esplotazioa ttipitzen dugu.

Kontsumoa ttipitzen dugu, ondorioz lehengaien agortze arriskua ttipitzen dugu, eta ondorioz munduko herritar guzientzat aski lehengai izaiteko posibilitatea haunditzen dugu.

Denen osagarria hobetzen dugu.

Hurbileko giza taldea eraikitzen dugu.

Sendagaiak eta sendatzeko tresnak munduko herri guzietan buruaskitasunean ekoiztu ahal izaitzeko baldintza

Denek lurra, lehengaiak eta ekoizpen bitartekoak erabiltzeko posibilitate berdina ukan behar dugu, hau da, lurra, lehengaiak eta ekoizpen bitartekoak denentzat berdintasunez eskuragarri izan behar dira.

Adibidez, sendabelarrak erein nahi dituen orok, lurra lantzeko posibilitatea ukan behar du.

Sendagaiak eta sendagailuak ekoizten dituztenen eta beste ekoizpen batzu egiten dituztenen artean, elgar eskaintza edo truke zuzena garatu: eman eta hartu, hartu eta eman, har eta eman, harreman.

Sendagaien eta arten prezioen goititzeak, eta eskasia arriskuak, kezkatzen gaituzte, baina euskal herritarren artean arriskua aurreikustea pozgarria zaigu.

Buruaskitasuna Sendaketan Batzordearen helburuak

- gure osagarria gehiago zaindu: hobeki jan eta edan, jarduera fisikoa egin, osasun mentala zaindu, ongi arnastu, urduritasuna ttipitu, kaltegarriak izaiten ahal zaizkigun produktu batzu gehiegi ez kontsumitu...
- sendagaiak eta sendatzeko tresnak ekoiztu;
- hurbileko ospitale autonomo herritarrak eraiki;
- herrietan buruaskitasuna garatu eta hiritar aintz hiritatik herrietara bizitzera joaiten lagundu.

Buruaskitasuna Sendaketan Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.

BURUASKITASUNA GARRAIOAN BATZORDEA

Oinarri ideologikoa

Hurbileko giza taldeen buruaskitasuna eraikitzen garraioan

Zergatik garraiobide eskasia arriskua dugu Euskal Herrian?

Euskal Herrian erabiltzen ditugun garraiobide gehienak ez ditugu Euskal Herrian ekoizten, mundu mailako merkatutik eskuratzen ditugu: oinetakoak, bizikletak, autoak...

Euskal Herrian ekoizten ditugun garraiobideak (autobusak, treinak...) ekoizteko, nagusiki mundu mailako merkatutik datozen ekoizpen bitartekoak erabiltzen ditugu: lehengaiak, makinak, makinak ibilarazteko energia...

Erabiltzen ditugun garraiobideak ibilarazteko ere, nazioarteko merkatutik datorren energia erabiltzen dugu: petrolioa, elektrizitatea...

Merkatuan ekoizpen edota banaketa arazoak baldin badira, merkatutik eskuratzen duguna eskasten ahal da.

Merkatuan arazoak sortzen dituzte: gerlek, beroketa klimatikoak, pandemiak, lehengaien (ura, petrolioa, metal urriak...) agortzeak, laborantxako lurren kaltetzeak, kapitalismoaren barne logikak (burtsen gainbehera...)...

Azken garaian merkatuan gero eta arazo gehiago izan da, eta gero eta gehiago izanen direla pentsa daiteke.

Garraiobideen prezioak azkarki goititu dira : autoak, ezantza...

Lehengai batzu eta energi iturri batzu eskasten ari dira.

Nola garraiobide eskasia aurreikus dezakegu Euskal Herrian buruaskitasuna garatuz?

Garraiobide ahal bezain sinpleak Euskal Herrian ekoiztu:

- zapatagintza;
- zaldien eta astoen hazkuntza eta garraiorako tresnen ekoizpena;
- orgen eta bizikleta sinpleen ekoizpena eta konponketa;

- garraioak gutxitu.

Garraibideak Euskal Herrian buruaskitasunean ekoiztearen ondorioak

Garraibide eskasia arriskua ainitz ttipitzen dugu.

Garraibideen ekoizpenean eta erabilpenean sortzen den kutsadura ainitz guttitzen dugu, eta ondorioz beroketa klimatikoa ere.

Behar duguna guhaurek gero eta gehiago ekoiztuz, beste langileen esplotazioa ttipitzen dugu.

Kontsumoa ttipitzen dugu, ondorioz lehengaien agortze arriskua ttipitzen dugu, eta ondorioz munduko herritar guzientzat aski lehengai izaiteko posibilitatea haunditzen dugu.

Denen osagarria hobetzen dugu.

Garraibideak munduko herri guziek buruaskitasunean ekoiztu ahal izaiteko baldintza

Denek lurra, lehengaiak eta ekoizpen bitartekoak erabiltzeko posibilitate berdina ukan behar dugu, hau da, lurra, lehengaiak eta ekoizpen bitartekoak denentzat berdintasunez eskuragarri izan behar dira.

Adibidez, garraiorako zaldien hazkuntzarako lurra, nahi duen orok erabiltzeko posibilitatea ukan behar du.

Garraibideak ekoizten dituztenen eta beste ekoizpen batzu egiten dituztenen artean, elgar eskaintza edo truke zuzena garatu: eman eta hartu, hartu eta eman, har eta eman, harreman.

Garraibideen prezioen goititzeak, eta eskasia arriskuak, kezkatzen gaituzte, baina euskal herritarren artean arriskua aurreikustea pozgarria zaigu.

Buruaskitasuna Garraioan Batzordearen helburuak

Garraibide ahal bezain sinpleak Euskal Herrian ekoiztu:

- zapatagintza ;
- garraiorako zaldien eta astoen hazkuntzarako tresnen ekoizpena ;
- orgen eta bizikleta sinpleen ekoizpena eta konponketa;
- garraioak gutxitu;
- herrietan buruaskitasuna garatu eta hiritar ainitz hirietatik herrietara bizitzera joaiten lagundu.

Buruaskitasuna Garraioan Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.

KOMUNIKAZIO BATZORDEA

Komunikazio Batzordea, Herribiltzaren barne eta kanpo komunikazioaz arduratzen da. Herribiltzako biltzarkideen hitz kolektiboa ezagutarazi nahi dugu, ez biltzarkide norbanakoena.

Horretarako, hedabideekin idatziz komunikatzen dugu, kolektiboki idatzitako agiriak zabalduz eta kazetarien galderei biltzarkideek kolektiboki idatziz erantzunez.

Herribiltzak antolatzen dituen ekintzetan, kazetariak ekintzen lekukoak izaitera gomitatzen ditugu eta ikusten dutenaren lekukotasuna hedabieetan emaitera.

MUNDUKO HERRIEN ARTEKO HARREMANETARAKO BATZORDEA

Herri zapatisten eta Herribiltzaren arteko harremanetarako Batzordea

Herri zapatisten eta Herribiltzaren arteko harremanetarako Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.

Erreferentziako idazkia

Txiapaseko komunitate Zapatisten autogobernua

Egiatzko demokraziara gehien hurbiltzen den gobernu garaikidea

Estatu mexikarrak 2003an lankidetzari bizkarra ematea erabaki eta gero, mugimendu zapatistak behin behineko autonomia gauzatzea erabaki zuen. Aitzineko hamar urteetan zehar, erresistentzia eta autonomia gobernuak proposatutako plan eta laguntzekiko jadanik indarrean baldin bazen ere, 2003an autogestioaren aldeko apustuak hauspo berri bat hartzen du.

Zapatisten antolakuntza politikoa hiru mailatan oinarritzen da.

- 1) 1400 komunitate edo herri. Orotara zapatisten kopurua 200 000 eta 300 000 artekoa da.
- 2) 42 komuna edo munizipalitate autonomo (hauetako bakoitzak komuna ezberdinak biltzen ditu).
- 3) 12 eremu handi edo eskualde autonomo (hauek komuna ezberdinen arteko antolaketa koordinatzea ahalbidetzen dute).

Maila horietako bakoitzean, biltzarrak badira eta 2-3 urtetarako mandatuak dituzten autoritate hautatuak:

- 1) Komunitate biltzarra eta Agente edo Komisarioak.
- 2) Komunaren biltzarra eta Kontseilu Munizipala.
- 3) Eskualdeko biltzarra eta Gobernu Onaren Kontseilua. Gobernu Onaren Kontseilua komunitate autonomoen ordezkariak osatzen dute. Lurraldeko boterearen egoitza, eskualde bakoitzaren hiriburuan kokatzen da, "Caracolean".

"Caracol"en esanahia aldakorra da. Batzuetan, eskualde hiriburu bakoitzaren sarreran dagoen eraikuntza konkretu bat izendatzeko erabiltzen da, harrera egiteko eta biltzarrak egiteko toki gisa erabiltzen dena.

Bestetan, eskualdeko hiriburu osoa ordezkatzeko du hitz horrek, baita Gobernu Onaren Kontseilua bera ere.

Caracolak eskala ezberdinen arteko lotura irudikatzen du, tokikotik orokorrera eta orokorretik tokikora, izan barne mailan (komunitatetik eskualdera) zein kanpo mailan (tokikotik mundu zabalera). Joan etorriko bidea eginez beti, karakolaren irudiak bidea eta mugimendua irudikatzen ditu aldi berean, izan maila nazional zein internazionalen, eta bide horretan baitezpadako diren trukaketa eta harremanak ahalbideratzen ditu, beti ere, hiru mailatan egituratutako antolaketa errespetatuz.

- 1) Herri mailan, ohiko herri biltzarra, kolektiboki antolatzeko eta ager daitezkeen arazoei erantzuteko tresna da. Agenteek, hartutako erabakien jarraipena egiten dute eta erabakiak gauzatzeko gaitasuna duten herri eragileekin lotura egiten dute.

Ohitura indigenei jarraikiz, herri biltzarra da erabakigune nagusia. Gauzak hola, lehen eskualdeko gobernuaren egitura ezberdinen eskeman, herriak (komunitateak), gainean ezarriak dira.

12 urtetik gorako haurrek biltzarretan parte hartzen ahal dute eta hitza hartu. Hala ere 16 urte bete arte ezin dute kargudun edo ordezkari posturik ukan.

2) eta 3) Komuna eta eskualde mailan, gobernu egiturek autonomiaren funtzionamendu egokia laguntzeko betebeharra dute alor guztietan (justizia, komunitate osagarria, hezkuntza, bizitegia, lurra, lana, informazio eta kultura, elikadura eta merkataritza...). Aldi berean, herri biltzarrekin elkarlanean, bizitza kolektiboa garatu, emazte eta gizonen parte hartze parekatua bultzatu, ingurumena zaindu, lurraldeak defendatu, ekoizpen baliabideak handitu, zapatista eta ez-zapatisten arteko harremanak kudeatu, eta estatu mexikarrak egin erasoan aurrean defentsa segurtatu behar dituzte.

3) Gobernu Onaren Kontseiluak, garrantzizko erabaki guztiak eskualdeko biltzarren erabakien menpe uzten ditu. Batez ere, autonomiaren alor ezberdinetako proiektuen erabakiei dagokienean. Eskualdeko biltzarra da eskualdeko autoritate nagusia; bi edo hiru hilabetero zenbait egunetako sesio batean elkartzen da eta ez-ohiko biltzarrak antolatzen ditu behar bereziek hala eskatzen dutenean. Eskualdeko biltzarra, komunitate bakoitzeko ordezkariak eta autonomiaren alor ezberdinetako arduradunak osatua da. Kasu batzuetan, biltzarrak berak Gobernu Onaren Kontseiluari zein erabaki hartu erraten dio. Beste batzuetan aldiz, erabakitzea zailagoa denean, adostasunik ez dagoelako edo gaia garrantzitsuegia delako, komunitate bakoitzeko oinarrizko biltzarrak kontsultatzen dira. Kasu hauetan, biltzarreko ordezkariak dagokie beren komunitatean erabakiaren hartzeko galdeketa bat antolatzea eta ondoren emaitza kontseiluari jakinaraztea. Emaitzak, aldeko, kontrako edo zuzenketa forma ukan dezake. Erantzuna azken kasu honetako denean, zuzenketa horiek kontseiluan eztabaidatuak dira eta galdeketa proposamen eraldatua berriz biltzarrei helarazten zaie. Batzutan, egiteko modu honek, herri biltzarren, kontseilu municipalen eta eskualde biltzarren arteko joan etorrien gehitze bat ekartzen du erabaki bat onartua izan aitzin. Beti ere, gehiengo nagusienaren onospena bilatzen da erabaki bat hartzeko. Hala ere, posible ez den kasuetan bozka gehien izan dituen erabakia hartzen da kontutan.

Autonomiaren ibilmoldean beste egitura batzuek ere esku hartzen dute, besteak beste EZLNren parte den Batzorde Klandestino Iraultzaile Indigenak edo eskualde bakoitzeko zaintza batzordeak; azken honek Gobernu Onaren Kontseiluaren kontuak kontrolatzen ditu hilabete guztiz.

Kontrola mantentzeko borondate hau, botereak sortzen dituen ordezkariak eta urruntze arriskuen kontzientziak bultzatzen du. Zapatistek argi dute, ordezkariak sistema batean, herritarren erabakitzeko eskubidea eta subiranotasuna arriskuan jartzen ahal direla praktika txarrak gertatu ezker. Horri aurre egiteko, ordezkariak ez dira diru ordainetan egiten, kargudunak edozein unetan aldatzen ahal dira eta betebeharrak kolektibitatearekiko zerbitzu gisa kontsideratuak dira. Izan ere, posible da instantzia batek beharrezko prozedura gauzatu gabe erabakiak hartzeko tentazioa izatea, izan denbora irabaztearen zein suposatzen duen esfortzu handiaren saihesteko aitzakiarekin. Egituren kopuru handia eta elkarren arteko lankidetzak estua, autogobernuaren funtzionamendu okerrak saihesteko bermeak dira.

Kontseiluko kideek eskuratutako betebeharrak

Kontseiluko kideek bete behar dituzten betebeharrak “kargu” gisa hartuak dira, ez da hauen ordainetan inongo dirusaririk edo abantaila materialik eskaintzen. Izan ere, inork ez du bere burua aurkezten kargudun izateko. Komunitateak berak proposatzen ditu kargudun izateko gai direla atzematen dituen herritarrak. Kargu hauen gauzapena komunitatearen bizi moldean oinarritzen da: herritar bakoitzak badaki komunitatea denen parte hartzearekin bakarrik existitzen ahal dela, lan kolektiboetan, karguetan eta elkarrenganako betebeharratan parte hartuz.

Karguak modu kolektiboetan gauzatuak dira beti, herritar guztien begirada pean, horrela, beren lana modu “ez egokian” egiten badute, instantziek kargudunak edozein momentutan ordezkatzeko ahal dituzte.

Mandatu bat betetzen duten gizon emazteek komunitateko partaide xume izaten jarraitzen dute. Autonomia zapatistak lan politikoaren des-espezializaioa bultzatzen du. Nehor ez da politika lanetan espezializatua, herritar guztiek behar dute lan politikoaren egiten ikasi, entzutea indartu, norberaren hutsez ohartu eta erabakiak hartzeko komunitatearen zuzendaritza onartu. Politika arloan inolako esperientziarik ez duten herritarrei kargu politikoak konfiantzaz emanaz, zapatistek gobernatu eta gobernatzaileen arteko aldea ezabatzen dute.

“Mandar obedeciendo” ren esanahia

Gobernuak bakarrik herriaren nahia betetzeko gobernatzen ahal du; ezin ditu bere nahi propioak inposatu.

Hala ere, zapatisten autonomia demokratikoa erabat horizontala deneko ideia baztertu egin behar da.

Gobernatzea bi zentzuetan gertatzen da, batzuetan herriak agintzen du eta gobernuak obeditzen du, beste batzuetan aldiz, gobernuak agintzen du eta herriak obeditzen du.

Hain zuzen, badira une berezi batzuk, duten larritasunagatik, non instantziek erabakitzen duten eta herritarrek esandakoa betetzeko obligazioa duten, adibidez estatuarekin eta berak lagundutako taldeekin izan tentsio uneetan adibidez.

Alde batetik, funtsean erabakitzeko eskubidea biltzarrei dagokie, hauek gauzatzen diren maila ezberdinetan; bestetik, modu aldizkatuan eta kargugabetzearen printzipioen menean diren kargudunek iniziatiba eta bultzatzaile papera ere badute.

Ordezkapeneko demokrazia eta partaidetzako demokraziaren arteko oposizioaz harantzago, autonomia zapatistak kargudun, bozeramaileen biltzar (2. eta 3. mailetakoa) eta biltzar orokorraren artikulatzeko moduak analizatzera gonbidatzen gaitu.

Ordezkaritzan oinarritutako egitura politikoetan bi motatakoak bereizi ditzakegu: alde batetik, erabakitzaileraren logika segituz estrukturalki banatzaileak direnak, eta bestetik banaketa hori ahal bezain beste ezeztatzen saiatzen direnak. Lehen kasuaren irudi argia da gaur egungo estatuak aurkezten dutena, metodikoki ordezkatuaren eraginkortasuna indargabetzen duena. Bigarren kasukoak aldiz, gobernatu eta gobernatzaileen arteko ezberdintasuna ahultzen saiatzen dira.

Estatuak erabaki kolektiboaren kontrako politika bat egiten dute eta “aginte-segurtasunean” oinarritutako politikan irudikatzen da; kontrara, estaturik gabeko egitura politikoek gobernatuen eta gobernatzaileen arteko muga hausten dute eta bere erreproduktzioaren kontra borrokatzen dute eten gabe. Agintarien lana kolektiboaren nahien gauzatzera mugatzen da. Horrela, autoritatearen gauzapena, egitearen indar kolektiboaren adierazlea da bereziki.

Zapatistak, kargudunak eta beste herritarrek bizimodu berdina izan dezaten segurtatzen dira. Bizpahiru urte irauten duten kargudunak, Gobernu Oneko Kontseilariak (bakoitzak

bere eskualdeko hiriburutik, Caracoletik, hauen eta herrien arteko distantzia handia dela jakinik) beren betebeharrak aldizkatuz betetzen dute, hamar-hamabost bat eguneko ordezkapenekin. Honela kargudunek beren usaiako zereginak jarraitzen ahal dituzte, familiaz eta lurretaz okupatuz. Egiteko modu hau baitezpadakoa da zeregin politikoaren espezializazioa eza segurtatzeko, eta herritarren ohiko bizitza eta kargudunen bizitzaren artean ezberdintasunik ez agertzeko, kolektiboaren zerbitzari direneko denbora tarteak laburra bada ere.

Autoritateak (Gobernamendu Onaren Kontseiluak) bere lanean laguntzeko, herritar batzuk aukeratzen dira kargudunen ausentzian hauen eguneroko betebeharrak egiteko. Gobernatu eta gobernatzaileen arteko bereizketa arriskua beti da presente.

Autonomiaren praktikan beti kontuan izan behar da autoritate funtzioen dispersioan lagunduko duten mekanismoen garapena.

Herrietan, goizean, herritarrek beren lurak lantzen dituzte, etxeaz okupatzen dira, haur eta kabalez.

Arratsetan, bakoitzak bere lana betetzen du komunitate elkarlanetan lagunduz edo kargu bat betetz.

Gauetz, boluntariotzan herritar batzuk zeregin komunitario administratiboez okupatzen dira.

Eskualde mailan, gure adibidearen eskualdearentzat (ikus 1 eskualdearen eskema), 24 herritar, Gobernu Onaren Kontseiluak markatutako 8 lan ildoetako betebeharrak burutzeko, 12 pertsonetako bi taldetan banatzen dira. Antolaketa honek segurtatzen du lan ildo bakoitzean gutxienez bi pertsona lanean aritzea (lan modu kolegiaren printzipioei jarraikiz) baita esperientzia gehien duten kargudunek esperientzia gutxiagokoekin elkarlanean aritzea ere (jakinik Gobernamendu onaren Kontseilua urtean behin berritatzeko dela).

Autonomiaren eraikuntza zibilaren eta EZLNren egitura politiko-militarraren arteko erlazioa

2003 garren urtean Gobernamendu Onaren Kontseiluak autoritate zibil baten sorrera aipatu zuen EZLNren egituratik kanpo legokeena. Autonomiaren indartzeak boterearen lekualdatze bat ekarri zuen, boterea EZLN-tik gizarte zibilak sortu autogobernu egituretara pasatuz, EZLNk modu bertikalean gauzatzen zuen boterea gizarte eragileek modu horizontal batera eramateko helburuarekin. Desmartxa hau ez da amaitutzat jotzen ahal; bukatu gabeko eraldaketa bat da oraindik. Dinamika argi bat baldin bada ere, tentsio puntu bat ere bada.

2011 garren urtean oraindik gizarte zibilaren egiturak agintaritzaren menpe jarraitzen zuten hein handi batean. Aginte zibilaren egiturak martxan baziren ere, honek ez zuen erabat botere militarren erabakitzeko gaitasuna saihesten. Garai hartan 5 eskualde zapatista nagusiak Batzorde Klandestino Iraultzaile Indigenaren (Comité Clandestino Indígena) begiradapean zeuden, eta berau, Komandantzia Orokorren gainbegirada pean (Comandancia General). Egoera honi aurre egiteko Eskualdeko hiriburu bakoitzean, Gobernamendu Onaren egoitzan, eskualdeko Batzorde Klandestino Iraultzaile Indigena ikuskatzeko batzorde bat sortu zen. Egitura honek Gobernamendu Onaren Kontseiluak hartu erabakiak bermatzea du helburu, herritarrek babestu eta eskualdeko sartze eta irteerak kontrolatzearekin batera.

Eskualdeko kontseiluek kontseilu herritarrek ezgaitzeko boterea atxiki dute, agintaritzaren militarren Gobernu Onaren Kontseiluaren zilegitasuna ezgaitzeko eskubidea atxiki duen bitartean.

Autonomia zapatistak

Zapatisten autonomia, tokian tokiko berezitasunei eta esperientziei erantzunez eta tokitik bertatik egiten den politika modu bat da. Egoera konkretuei erantzuten die eta ez du alde zuzenik pentsatutako soluzio abstraktu eta orokorrik onartzen: garapen etengabeaz izateaz gain, politika eredu bakarretik aldentzen da, Caracol batetik bestera era ezberdinetan praktikatu bai da, baita komunitate batetik bestera ere.

Lurralde kudeaketa paraleloen existentzia

Zapatisten eraginpean dauden lurraldeetan bertan bada autonomia ez den beste kudeaketa egitura bat: Estatu mexikarrarena. Nahiz eta estatuaren aurrean zapatistek beren izaera autonomia aldarrikatu, lurralde berean autoritate zapatista eta estatalak nahasten dira. Herri autonomoak (municipios autónomos) sarean egituraturako lurraldeak dira, hauen mugak aitzinagoko juridikzio ezberdinen artean aurkitzen dira batzuetan, juridikzio hauek estatu mexikarrarenak izanik, eta lurralde bera okupaturik herri autonomoen egiturekin lehiatzen dira. Hau dela eta, autonomia zapatistaren muga fisikoak etengabeko birdefinitze batean dira lurraldean.

Egia esan, Chiapaseko lurraldea bi egitura politikoei gobernatzen dute. Bi gobernu hauetako bakoitzak lurralde paraleloen kudeaketa segurtatzen du. Udalerri gehienek, beren burua autonomo gisa izendatu gabe ere, zapatista zein ez-zapatistak okupatzen duten lurraldea kudeatzen dute. Batzuetan familia berean ere izan daitezke zapatistak eta ez-zapatistak direnak. Egitate bat da, beraz, lurralde berean bi kudeaketa politiko paralelo daudela eta herritar bakoitzak bati edo besteari ematen dion zilegitasunaren arabera, modu batean edo bestean erantzungo diela bere beharrei. Bakoitzak bere eskolak eraikitzen ditu, bere klinikak, bakoitzak bere programak garatzen ditu... Eguneroko bizitzan herritar orok aukeratzen du bere gobernatzeko modua. Gobernuen zilegitasuna herritarren eguneroko bizimoduak bermatzen du, bakoitzak erabakitzen du estatuko eskolara edo eskola autonomora eraman seme-alabak, artatzeak estatuko klinikan edo klinika autonomoan egitea... Egitura autonomoak, beraz, beste gobernu batek ere kudeatutako lurraldean beren kudeaketa propioa duten biztanleak gobernatzen ditu. Honela hiru egoera aurki ditzakegu:

1. Bi gobernamenduak elkar ez-ikusiarera egiten dute.
2. Bi gobernuen arteko elkarriketa gertatzen da kudeaketa eraginkorrago baten helburuarekin.
3. Elkarbizitza ez da, konfrontazioa baizik.

Oventic-eko Gobernu Onaren Kontseiluak, ez-zapatistek egindako justizia eskakizunei erantzun die behin baino gehiagotan. Honek erakusten du zapatistak ez direnek ere konfiantza egiten dietela zapatisten kudeaketa egiturei.

Iturriak:

Jérôme Baschet La rébellion zapatiste (2019)

<https://colimacon.org/category/zapatistes> (2019.04)

<https://laboratoireurbanismeinsurrectionnel.blogspot.com/2011/07/les-municipalites-autonomes-et-rebelles.html>

KURDISTANGO HERRI AUTONOMOEN ETA HERRIBILTZAREN ARTEKO HARREMANETARAKO BATZORDEA

Kurdistango herri autonomoen eta Herribiltzaren arteko harremanetarako Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.

Erreferentziako idazkia

Kurdistango Herrien Konfederazio Demokratikoa

Konfederalismo Demokratikoa, nazio-estatu kurdo independenteari alternatiba da; Konfederalismo Demokratikoan, kurdoak ez diren nazioek ere beren tokia dute. Gaurko Estatuak (Turkia, Siria...) mugen kuadroan geldituz, Konfederalismo Demokratikoak, hizkuntza eta etnia ainitzez osaturiko nazio demokratikoa sortzea ahalbidetzen du. Herria (Komuna), hau da lurralde batetako herritarren biltzarra, nazio demokratiko horren oinarria da.

Bertan, herritarren arteko autokudeaketa politikoa egiten da.

Konfederalismo Demokratikoa, herrien (komunen) konfederazioa da; gobernantza mota hau, Estaturik gabeko administrazio politikoa da, estaturik gabeko demokrazia. Estatuak, administrazioaren eta poderearen zentralizazioan eta burokrazian oinarritzen da.

Konfederalismo Demokratikoan herriak erabakitze prozesua arrunt menperatzen du.

Erakunde politikoak herritarren etengabeko kontrolpean dira eta hauteskundeak bitartez etengabe arraberrituak dira.

Konfederalismo Demokratikoa herri autonomoen federazio librea da beraz. Sistema federala da eta horren baitan herriak koordinatzen dira, herrien arteko biltzarretan. Herri mailan konpontzen ahal ez diren arazoei edo eremu hau gainditzen duten erronkei aterabideak atxemaiteko, eremu zabalagoen koordinazio guneetara jotzen da. Herrien arteko biltzarrerara mandatu batekin joateko bozeramaile bat hautatzen da.

Herrien arteko biltzarran, denen arteko kontsentsua xerkatzen da. Proposamenak herrietako biltzarretara berriz itzultzen dira, hor onartuak edo aldatuak izaitzeko gisan.

Biltzar horrek, bere kanpotik heldu zaizkion erabaki, lege edo arau inposatuak gehienetan ez ditu onartzen. Baina batzutan, interes orokorraren izenean erabakia inposatua izaitzen ahal zaio. Beraz, denen ongi izaitzea jokoan denean, herriak ez du oztoporik eman behar eta bere nahiaren kontra aplikatzea behartua izaitzen ahal da.

2014ko urtarrilean, Siria iparraldean autonomia aldarrikatua izan zen. 2016an, Siriako Indar Demokratikoek Rojavari (Mendebaldeko Kurdistan edo kurdoak nagusi diren ipar Siriako eskualdea) izen berria ezarri zioten: Ipar Siriako Federazio Demokratikoa; bertan, kurdoetaz gain, arabiar, siriarrak, asiriarrak, armeniar, turkmeniar eta txetxeniar komunitateen ordezkariak biltzen dira.

Kurdoak nagusi diren eskualde honetan, egitura autonomoak sortzera eta auto kudeaketa praktikatzera bultzatzen da. Komunitate etniko batek beste batengan ukaiten ahal duen dominazioa gaitzesten da, jakinik Ekialde Ertainean, “nazio 1, erligio 1, hizkuntza 1, bandera 1” doktrina nagusi dela.

Irakiar basamortuan, Maxmur akanpalekuan, Turkiar Kurdistango herbesteratuak (turkiar estatuak kanporatu zituenak) bizi dira. Konfederalismo Demokratikoa bizi dute. 2016an, 15000 herritarrak 5 distrikto desberdinetan banatzen ziren. Distrikto bakoitza Herriz osatua da. Herria (Komuna) ibilmolde demokratikoaren oinarritzko egitura da; eremu berdinean bizi diren 15-50 bat familia biltzen ditu. Herri Biltzarra erregularki biltzen da; 16 urte goitikakoek esku har dezakete. Errefuxiatuen akanpaleku hau autonomia osoan ibiltzen da.

Iturriak:

«La Commune du Rojava, l'alternative kurde à l'État-nation» (2016), telekargatzeko :
https://www.syllepse.net/syllepse_images/articles/la-commune-du-rojava.pdf
«La fascinante démocratie du Rojava» de Pierre Bance (2020)

Herri autoktonoen eta Herribiltzaren arteko harremanetarako batzordea

Herri autoktonoen eta Herribiltzaren arteko harremanetarako Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.

Heriotza Bizitzen Batzordea

Heriotza Bizitzen Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.

Erditzea Batzordea

Erditzea Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.

Emazteen Batzordea

Emazteen Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.

Emazteen eta Gizonen Batzordea

Emazteen eta Gizonen Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.

Lurra Eskura Batzordea

Lurra Eskura Batzordean esku hartu nahi duenak, herribiltza@riseup.net helbidera idatz dezala.